

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

3894

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 15ekoa, Energia eta Meategien Zuzendaritzarena; honen bitartez, «Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi SA» eta «Petrichor Euskadi Coöperatief UA Sucursal en España» enpresek hidrokarburoei buruzko ikerketarako eskatutako «Lore» izeneko baimenaren eskaera argitaratzen da.

Hidrokarburoen sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legearen 3. artikulua ezartzen duenez, Autonomia Erkidegoei dagokie, Lege horretan aurreikusitakoari jarraikiz, hidrokarburoei buruzko ikerketarako baimenak ematea, baldin eta baimen horiek autonomia-erkidegoen lurralde-eremuari eragiten badiote.

Gainera, Legearen II. tituluan, hidrokarburo-hobien ikerketarako araubide juridikoa ezartzen da, eta gainera, hidrokarburoei buruzko ikerketarako baimenak emateko prozedura xedatzen da. Prozedura horren barnean hartzen da, besteak beste, hidrokarburoei buruzko ikerketarako baimenen titular izateko ezarritako baldintzak betetzen dituzten interesdunek egindako eskaerak BOEn eta EHAAn argitaratu behar direla.

2011ko ekainaren 10ean, «Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi SA» eta «Petrichor Euskadi Coöperatief UASucursal en España» enpresek hidrokarburoei buruzko ikerketarako baimena eskatu dute, «Lore» izeneko, honako koordenatu hauek mugatzen dutena, longitudeak Greenwicheko meridianoa erreferentziaz hartuta kalkulatu direla:

3. espedientea: «Lore» baimena, 37.314 hektareakoa, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatua eta honako muga hauek dituen:

Erpina	Latitudea	Longitudea
1	43° 20'00''	2° 45'00''
2	43° 20'00''	2° 35'00''
3	43° 05'00''	2° 35'00''
4	43° 05'00''	2° 45'00''

Eta hori guztia jendaurrean jartzen dugu urriaren 7ko 34/1998 Legearen 17. artikuluan ezarritako xedeetarako, hau da, bi hilabeteko epean, ebazpen hau BOEn eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita, beren eskubideak kaltetuta atera direla uste dutenek lehiarako eskaintzak edo ebazpenaren aurkako ekimenak aurkezteko aukera izan dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 15a.

Energia eta Meategien zuzendaria,
OSKAR ZABALA RABADÁN.